



Portadaren egilea Sahatsa Jauregiaren begiak



irudia eta testua:
Ibai Gandiaga



Gure portadaren egilea, Sahatsa Jauregi, artista hasiberria dugu gure aldizkari jaioberri honetan beste modu batean izan ezin zitekeen bezala. Soinean daramatzen hogeita lau urteek Hernani, Sheffield eta Bilboko bazterrak begi bereziekin aztertu ostean, Egiako Kultur etxeko hormetan ezagutu genuen, anfibio eta lore artean. Hasiberria izatea zer den galdetu nahi izan diogu.

Olatu interesgarria irudikatu duzu. Zerbait zabarra eta ukitu berriak uztaurtu dituzu, ezta?

Hokusairen marrazkiak zaharrak iruditzen zaizkizu? Bai, egia da Hokusairen olatuen berrikuspen bat egin dudala. Gizonak, ia bizitza guztia eskaini zion Fuji sumendia ikuspuntu ezberdinetatik marrazteari, ehunka olatu marraztu zituen eta perfektiora hurbiltzen joan zen. Niri, momentu konkretu batean, lanean ari nintzen ideiekin bat zetorren eta kopiatzea interesatu zait. Edo bueno, diplomatikoago esaten den moduan, omenaldi bat egin diot.

Hasiberriak garenean dena hobeto hauteman dezakegu, aldez aurretiko aurreiritziarik gabe? Edo dena esperientziaren metaketa butsa al da?

Gizakiok, nahiko prebisibleak eta errepikakorrek garelako iruditzen zait eta alde horretatik, esperientzia duenak, hasiberriarekiko, akats edo oztupoen ezagutza badu, eta hori kristona da. Baina modu berean, esperientziak desenkantatu-sentsazioa eragin dezake eta horren aurrean hasiberriaren ingenuotasuna ausartagoa da. Beraz, estrategiarik onena, bakoitzak duenarekin albat hoberen egitea da.

Artearen gaur eguneko egoerari buruz, Juan Freyre blogariak bonako hau adierazi zuen, "gaur eguneko artearen arazoetariko bat, objektuarenganako ("obra" reinganako) obsesioa da, sormenaren zati garrantzitsuen, hots, prozesua, alderatu". Badirudi, aurreko belaunaldian ez bezala, prozesua eta korpus teoriko bat izatea jada ez dagoela modan artearen munduko eremu ugarietan. Hasiberriak zaretanok, ildo horri jarraitzeko asmorik baduzue?

Uste dut badagoela egungo artea kokatzeko behar bat eta horretarako lege unibertsalak egiten direla, denerako aplikagarriak, dena ulertu, deszifratu eta ondorioz, kontrolpean edukitzeko. Nik ezagutzen dudanari buruz hitz egin dezaket bakarrik eta zentzu horretan, bai, Juan Freyre horrekin ados egon naiteke objektu edo produktuarekiko afektuan, "fetixizazio" moduan. Baina objektua erate horretan nik ez dut uste prozesua kanpoan dagoenik. Are gehiago, prozesuak utzitako arrastoak oso garrantzitsua izaten jarraitzen duela uste dut. Teoriari dagokionez, beste tresna bat gehiago da, publizitatea izan daitekeen moduan. Esan nahi dudana zera da, norberaren imaginarioa, egunerokotasunean topo egiten dituzun esperientziez osatzen dela, eta lan egiteko garaian, esperientzia horien selekzio moduko baten isla dela. Egia da, ez dugula artea futuristek bezala ulertzen, manifestu eta guzti baina hainbatetan entzun dugun moduan garaiak aldatu egiten dira eta ez dugu aurreko belaunaldiekiko konplexurik sentitu beharrik. Asko jota, bizi izan ez dugun zerbaiten nostalgia pixka bat.

Zein zailtasun aurkitzen ditu Arte Ederretako lizentziatu berri batek lan munduan egoki txertatzeko? Zuen burua berrasmatu behar al duzue?

Ez da erraza Arte Ederrek bukatu eta egundoko zartatekoa ez eramatea. Hasierako momentu hori nahiko gogorra da normalean, baina beharrezkoa ere bai. Nondik jo nahi duzun erabakitzen joan behar zara pixkanaka-pixkanaka. Urte horietan hartzen dituzun erabakiak, momentuan kontziente ez bazara ere, guztiz erabakigarriak izango dira. Ez da "no future". Izatez, "future"n sinestea beharrezkoa da eta horretan konstante izatea. Eta gauzak, poliki-poliki ateratzen joaten dira...

Zuen irakaskuntza lan-mundura egokitzea faltan bota duzu? Balizko pragmatikotasun horrek zuen sormena zapuztuko lukeela pentsatzen duzu?

Badirudi, Bologna eta hezkuntza-erreforma berriekekin, hezkuntza, "arte aplikatuak" deituriko praktiketan oinarritzen joango dela eta berriro ere, artearen ideia klasikoaren heriotza aurreikusten da. Baina egia esan, seguru nago jendeak gauzak egiten jarraituko duela, ez dakit estatutu akademikoaren babespean ala ez, baina horrek neurri batean berdin dio. Kontua da, sormen-praktiken faktore inutela oso erakargarria dela eta plazer asko eragiten duela eta hori ez dela egunetik gauera desagertzen.

